

Joxemari Carrere Zalbala

IPUIN KONTALARIA

Kulturismo kultura

K

ultura askotan kulturismoarekin nahasten da. Eta astakeria dirudi lehenengo kolpean. Jakina, nola nahas dezake norbaitek, neurona bere lekuan edukita, arimaren elikatzaileria omen den jarduna, giharrak puztea besterik bilatzen ez duen ariketa fisiko sortarekin? Astakirtena behar da izan gerol! Graziosoa da ordea –niretzat behintzat–, kulturari ibilita norbere burua kulturizatatzat izendatzea. Izan ere, ez dut uste halako kirtenkeria denik. Zintzoak bagara, kultur jardunak gero eta antza gehiago baitute kulturismoarekin.

Zintzoak izan gaitezela nioen, ezen, zer bilatzen baitute gaur egun antolatu ohi diren kultur ekintza gehienek? Zein irizpide daude horien atzean? Ikus dezagun aipatu kulturismo zalea. Bere helburua izango da gorputzeko giharrak ahalik eta ederren agertzea gorputza tenkatu ahala. Horretarako hainbat ordu emango ditu zama astunenak altxatzen –tira, eta orain aipatuko ez ditugun bestelako “lagungarriak” ere–. Zertarako? Zer ekartzen dio horrek kirolaren onuratik? Agian ezer gutxi, baina beharbada, ospea lortuko du bere gorputzarekin, edo besterik ez bada, itxura, ustez, hobegoa izango du besteen begien aurrean. Gorputzari kultura



CONNIE BEYREUTHER

deitu ohi zaio horri. Modu berean begiratzeko badiogu kulturari, asko aldenduko ote da? Ikus dezagun. Kultur ekitaldi bat antolatu da. Garrantzitsua. Hainbat ordu eta diru inbertitu dira hiriko aretorik entzute-tsuenean eskaintzeko. Jendeak egun asko aurretik erosi ditu txartel garestiak. Eguna heldu eta aretoa lepo. Arrakastatsua izan da kultur ekintza. Norentzat ordea? Zer ekartzen dio horrek kulturaren onurari? Agian ezer gutxi, baina, beharbada, ospea eta eskerronak lortuko ditu horren antolatzaileak, kultur ekintza hain garrantzitsua hirian antolatzeagatik. Kulturari kultura deitzen zaio horri.

Kultura ere jainkoei omen zaie. Kirola bezala kultura jainkotzen den jendarte honetan, ahaztu egin dira jardun horien benetako helburua, alegia, pertsonen hazkunderako tresna direla. Aitzitik, barrunberik gabekoak bihurtu ditugu. “Jendeak antzerkera joaten denean, bere arazoak ahaztu nahi ditu”. Halako esaldiak udal kultur programatzaile garrantzitsu baten ahotan, berak bezain beste garrantzia dauka, ez da esaldi soila. Esan nahi du bera arduratuko dela jendeari arazoak ahaztarazten. Ahantz ezazu zure bizitza, zatoz antzerkera. Eta zer eskaintzen da eskenatokian? Gihar eder batzuk, besterik ez. ■

« Zintzoak bagara, kultur jardunak gero eta antza gehiago du kulturismoarekin »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Lagunei idatzi euskarazko eskutitz arinenek ere, bide luzeagoa egingen dute helbideraino iristeko erdarazkoak baino. Frogatuta daukat. Eta are frogatuago, haiek igorritakoak, azkenak hilabete eta erdi egin baitu auskaloko bidetik nireganaino heltzerako. Aldiz, erdarazkoak hiruzpalau egunetan heltzen dira, euskarazkoak ez bezala irekita izan direnik arrastorik gabe. Normal. Izan ere, euskarazkoaren gutunazalak, bizpahiru aldiz zabaldua izan balitz bezala eta esku dorpez puskatuta, bere beheak neurritz kanpo luzeegiak erosi eta bere horretan utziak arrastaka daramatzaten galtza-

Preso

praken itxura dakar, urratutako intimitatearen lekuko. Argi utzi nahi digute, euskaraz idatzitakoak zigortzen dizkigutela eta normalizazioak erdaraz idaztea eskatzen duela. Horrela jotzen digute beren erronka, etengabe enbidoka. Bi arrazoi dauzkagu gurean jarraitzeko. Gure arteko harremana euskaraz eraikia dugula, erdarak gure artekoetan arrotz ditugula, eta zigorrek eta mendekuzko injustiziek ahuldu, herabetu, kikildu eta mehetu baino, hazten eta indartzen gaituztela. Eguberritakoak otsailaren erdialdean jasotzen ditugula? Azaroan igorri garaiz iritsi daitezten. Eta orain, udaberria irudikatuz jardun, gauza bagara eta. ■